

## **SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUAK 2016ko URTARRILAREN 26an EGINDAKO BILERAREN AKTA**

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan, arestian aipatutako eguneko hamaikak direla, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ohiko bilera egin du, Presidente jaunak aldez aurretik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

**KONTSEILUBURUA:**  
Danel Bringas Egilior jn.

**KONTSEILUKO KIDEAK:**  
Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.  
Cristina Senarriaga Rojo and., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.  
Jonatan Sánchez Fernández jn., Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea.  
Lorea Artetxe De La Fuente and., Bildu Udal Taldea.  
Pedro Miguel Lucena Balda jn., Euskal Sozialistak Udal Taldea.  
Luis Angel Urdiales Villanueva jn., Udal Talde Popularra

Kontu-hartzaile eskuordetua: José Miguel Paredes Cisneros jn.  
Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda.  
Zuzendaria: Carlos Moran Arostegi  
Komunikazio arduraduna: Margarita Olabarrieta Sobera

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

### **1.- 2015eko AZAROAREN 24ko AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Akta aho batez onartu da. Lucena Balda jaunak abstentzioa agertu du bileran egon ez zela argudiatuz.

### **2.- 2015eko EKITALDIAREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA**

Bringas Egilior jaunak SKAko Zuzendari jaunari eman dio hitza, zeinek adierazi duen Udal Talde Politikoen badutela agirian dauden zifren berri eta zalantzaren bat egon ezean, pozik erantzungo duena, ez dagoela ezer nabarmenik aipatzeko. Bakar-bakarrik jakinarazi du esleitutako aurrekontu osoa gastatu egin duela.

### **3.- BATZORDEBURUAREN GAIK**

**Santurtziko Antzerki Jaialdia**

Bringas jaunak adierazi du Batzordearen aurreko bileran Antzerki Jaialdiaren gaineko zertzelada batzuk eman zirela baina oraingo honetan oroitxostena ekarri dutela. Agiria itzultzen ari dira, horregatik ez dute bilerara euskarazko ordaina ekarri. Hori esanda, hitza Moran Arostegi jaunari eman dio.

Zuzendari jaunak jakinarazi duenaren arabera, edizio honetan batetik, areto barruko hamahiru ikuskizunetan jarri dutela arreta, umeentzako hiru saioetan barne, eta bestetik, Kale Free ekimena berreskuratzeko ahaleaginean. Azaldu du hau kalean emateko ikuskizun-maratoi txikia dela, emanaldi guztiak leku berean egiten direla eta aurkezpen-formatua duela, askotariko lehiaketa bailitzan. Jarraitu du esanez oso harrera ona izan duela, jasotako iritzi onak kontuan hartuta. Horrez gain, programazioaren kalitatea ere oso ona izan dela aipatu du.

Aurrekontuaz jakinarazi du orokorrean ordainsarien zenbatekoa berreskuratu ahal izan dela, diru-laguntzak eta leihatilan bildutakoa kontuan hartuta.

Eta gai honi buruzko beste parte hartzerik egon ez denez, Bringas Egilior jaunak beste gai bati heldu dio.

### **Langileen egoera**

Bringas Egilior jaunak batzordekideei SKAn eman beharreko atezaintza-, eserleku zaintza- eta zine proiektio-zerbitzuen enpresa esleipenduneko langileen egoerari buruzko agiria banatu die eta esan du uste duela horrekin Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldeak aurreko artezkaritza-kontseiluan eskatutako informazioari erantzun emango zaiola.

Bringas jaunak esan du horri buruzko zalantzarik baldin badago orduantxe galde daitekeela edo bestela, hurrengo kontseiluan. Horrela bada, Kontseiluburu jaunak hurrengo gaiari heldu dio.

### **Inauteriak**

Bringas Egilior jaunak Inauterien Jaitsieraren XII. edizioaren inguruko idatzizko informazioa banatu die. Azaldu duenaren arabera, Inauterien Jaitsieraren aurreko astean, Kultura batzordean adierazi bezala, zenbait ekitaldi egingo dira udalerriko ikastetxeekin batera.

Jarraitu du esanez Jaitsieraren sariak eta ibilbidea aurreko urteetako bera dela eta gaineratu du parte hartzeko oinarriak Serantes Kultur Aretoaren webgunean daudela ikusgai, Kontseiluko kideen eskura.

Beste gairik izan ez denez, Kontseiluburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran zehaztutako egunean, goizeko hamaikak eta

bederatzi minutu direnean. Eta nik, Idazkari Eskuorde naizen honek, hau guztiau ZIURTATU egiten dut.

O E°  
KONTSEILUBURUA